

ESKAERA NOLA EGIN ETA NON AURKEZTU JARRAIBIDEAK

60/90ects Master batera aurrez izena eman duten ikasleentzat izango dira EHUko Nazioarteko Harremanetarako webean argitaratuta dauden epeak eta kriterioak.

Mugikortasun programan parte hartzeko interesa duten ikasleek, eskabidea egiteko unean aurrez izena emanda badaude 60/90 masterretako batean eta onarpen-gutuna badute, masterreko arduradunak beteta eta sinatuta, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko diote bere master ikastegiko koordinatzaileari. (Nora bidali beharko den dokumentazioa gure webean eskegita dagoen deialdian 4. puntuari)

- 1.- Eskabidea inprimatua, osorik beteta, ikasleak sinatua eta masterraren arduradunak ontzat emana. Bertan, eskaintzetako 8 destino eskatzen ahalko dira, lehentasunaren arabera. Eskaintzen diren destinoak Nazioarteko Harremanen web orrian daude.
- 2.- NIE (atzeritarrak) edo **NANaren** fotokopia, **indarrean delarik**.
- 3.- **Ikasle eskatzailearen banku-datuak** agertzen dituen aurrezki-libretaren lehenengo orriaren fotokopia, laguntza ekonomikoa bertan sartu ahal izateko. Ikasleak kontuko titular edo titularkide izan behar du.
- 4.- Hizkuntza ziurtagirien kopiak edo koordinatzaileak eskatutako beste dokumentazioa.
- 5.- Masterrean parte hartzeko bidea ireki dion titulazioko Espediente Akademikoaren kopia.
- 6.- Onarpen gutuna, UPV/EHU-n masterreko ikasketak egiteko.
- 7.- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren ikasketa-beka orokorra jaso duela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia, edo Eusko Jaurlaritzaren, hala badagokio.

Dokumentazioa aurkezteko lekua eta bitartekoa deialdiaren 4.2 puntuari adierazten da, Nazioarteko Harremanen webgunean.

OSO GARRANTZITSUA: osorik bete gabe dauden eskariak ez dira kontuan hartuko.